

## Xedapen Orokorrak

### OSASUN SAILA

#### 1855

AGINDUA, 1995eko martxoaren 30ekoa, Osasun sailburuarena, osasun zentro, zerbitzu eta establezimenduen Erregistroa arautzen duena.

Osasun zentro, zerbitzu eta establezimenduak irekitzeko, ihardunean jartzeko eta aldatzeko baimenei buruzko urriaren 11ko 396/1994 Dekretuak osasun zentro, zerbitzu eta establezimenduen Erregistroa sortu zuen bere gehigarritzko xedapenetatik bigarrenan, Osasun Saileko Osasun Plangintza, Antolaketa eta Ebaluaketa Zuzendaritzari atxikita.

Xedapen horretan ezartzen denez, Osasun sailburuaren Aginduz arautuko dira Erregistro horren ezaugarriak, antolaketa eta iharduna.

Beraz, aipatutako 396/1994 Dekretuaren azken xedapenetatik bigarrenean xedatutakoaren indarrez, dekretua garatzeko eta ezartzeko behar diren xedapenak emateko ahalmena Osasun sailburuari ematen zaionez, hauxe

#### XEDATU DUT:

##### 1. atala. - Helburua eta antolaera.

1.- Osasun zentro, zerbitzu eta establezimenduen Erregistroak duen helburua horien guztion inskripzioa egitea da. Osasun zentro, zerbitzu eta establezimenduak irekitzeko, ihardunean jartzeko eta aldatzeko baimenei buruzko urriaren 11ko 396/1994 Dekretuaren 2. atalean aipatutakoak dira horiek, hain zuzen. Bidezkoa denean, bestalde, beste erregistro batzuetan ere inskribatuko dira.

2.- Erregistroa bakarra izango da Euskal Autonomi Elkarre guztirako. Eta Osasun Saileko Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurralde ordezkaritza bakoitzean bertakoa kudeatuko da deszentralizatuta.

##### 2. atala. - Erregistroko idazpen moduak.

1.- Era honetako erregistroko idazpenak egingo dira:

a) Inskripzioa: osasun zentro, zerbitzu edo establezimenduak sortzeko aldiz aurretiko baimenak ematen direnean.

b) Inskripzioak aldatzea: osasun zentro, zerbitzu edo establezimenduen osasun ezaugarrietan funtsezko eragina duten aldaketak egiteko baimenak ematen direnean.

c) Inskripzioak ezabatzea: batetik, osasun zentro, zerbitzu edo establezimenduaren titularrak berak adierazita, norbere borondatez ixten denean, eta bestetik, baimenak indargabetzen direnean, bai indarraldia berriztatu gabe amaitzen delako, bai beste edozein legezko arrazoi dagoelako ere.

2.- Ihardunean jartzeko administrazio baimenak eman eta gero jasoko dira Erregistroan inskripzioak eta

## Disposiciones Generales

### DEPARTAMENTO DE SANIDAD

#### 1855

ORDEN de 30 de marzo de 1995, del Consejero de Sanidad, por la que se regula el Registro de centros, servicios y establecimientos sanitarios.

El Decreto 396/1994, de 11 de octubre, de autorizaciones de apertura, funcionamiento y modificación de centros, servicios y establecimientos sanitarios, crea en su Disposición Adicional Segunda el Registro de centros, servicios y establecimientos sanitarios, adscrito a la Dirección de Planificación, Ordenación y Evaluación Sanitaria del Departamento de Sanidad.

Dicha Disposición así mismo establece que la regulación de las características, organización y funcionamiento del citado Registro se hará mediante Orden del Consejero de Sanidad.

Por ello, y en virtud de lo dispuesto en la Disposición Final Segunda del citado Decreto 396/1994, que faculta al Consejero de Sanidad para dictar las disposiciones necesarias para la aplicación y desarrollo del mismo,

#### DISPONGO:

##### Artículo 1. - Finalidad y organización.

1.- El Registro de centros, servicios y establecimientos sanitarios tiene como finalidad la inscripción de los mismos, en los términos del artículo 2 del Decreto 396/1994, de 11 de octubre, de autorizaciones de apertura, funcionamiento y modificación de centros, servicios y establecimientos sanitarios, sin perjuicio de su inscripción en otros Registros, cuando proceda.

2.- El Registro, que será único para toda la C.A.P.V., se gestionará de forma descentralizada desde cada una de las Delegaciones Territoriales del Departamento de Sanidad de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa.

##### Artículo 2. - Tipos de asientos registrales.

1.- Existirán los siguientes tipos de asientos registrales:

a) De inscripción: en los supuestos de autorizaciones previas para la creación de centros, servicios o establecimientos sanitarios.

b) De modificación de inscripciones: en el caso de autorizaciones para la realización de modificaciones sustanciales, que afecten a las características sanitarias de los centros, servicios o establecimientos.

c) De cancelación de inscripciones: tanto en los supuestos de cierre voluntario, comunicado por el titular del centro, servicio o establecimiento, como cuando queden sin efecto las autorizaciones, bien por el transcurso de su plazo de vigencia sin haberse renovado, bien por otras causas legales.

2.- Los asientos de inscripción y de modificación se practicarán una vez concedidas las correspondientes

aldaketak agertzeko idazpenak, baimen horien bidez egiaztatzen delako agindutako baldintzak eta betebeharrak betetzen direla, halaxe xedatzen baita 396/1994 Dekretuaren 11 c) atalean.

Inskripzioak ezabatzeko, ostera, eskuduntzak dituen organoak agiri bat emango du, ezabatzeko arrazoiak badaudela egiaztatuz.

### 3. atala. – Aldamenetako oharra.

1. – Aldamenetan oharra jarriko dira osasun zentro, zerbitzu edo establezimenduen aldaketak Erregistroan jaso behar direnean; baina, horretarako, edo aldaketak ez dira funtsezkoak edo osasunaren aldetik garrantzi gabekoak dira, eta baimena beharrean, nahikoa dute jakinarazpen soila egitea.

2. – Aldamenetako oharretan, halaber, osasun zentro, zerbitzu edo establezimendu bakoitzak erakunde publikoekin izenpetutako itunei buruzko datuak jasoko dira, baita bakoitzak jasotako dirulaguntza publikoak eta beren aurka hasitako zigor espedienteak, zein administrazio eta osasunaren ikuspegitik interesgarri diren beste datu guztiak ere.

### 4. atala. – Erregistroko oinarriko informazioa.

Osasun zentro, zerbitzu edo establezimendu bakoitzaren oinarriko informazio lez, honako datu hauek jaso behar dira gutxienez Erregistroan:

- a) Erregistroko zenbakia.
- b) Inskripzioaren eguna.
- c) Baimenen eguna.
- d) Izena.
- e) Jabetzaren titularra.
- f) Sorospen ihardueraren arduraduna.
- g) Egoitza.
- h) Sorospen modua.
- i) Ohe kopurua, kasua hori bada.

### 5. atala. – Iharduteko arauak.

Idazpenak eta aldamenetako oharra ofizios egingo dira, osasun zentro, zerbitzu edo establezimenduari baimena emateko administrazio espedientearen ageri diren datuen arabera.

Horretarako, baimena eman eta gero edo, kasua beste hau bada, interesatuaren jakinarazpena jaso ondoren, eskuduntzak dituen organoak emango dio horren berri osasun zentro, zerbitzu edo establezimenduak bere egoitza duen lurralde ordezkariaren Erregistroko arduradunari, inskripzioa edo oharra egin dezan.

### 6. atala. – Erregistroa publikoa da.

1. – Osasun zentro, zerbitzu eta establezimenduen Erregistroa publikoa da. Herritar guztien eskura daude erregistroko inskripzio edo oharretan jasotako datuak.

Interesatuak eskatu eta gero, beren datuen berri emango diete lurraldeetako Erregistroko arduradunak, eta datuak egiaztatzeko ziurtagiriak egingo dizkiete.

Atal honetan arautzen den publikotasuna, bestalde,

autorizaciones administrativas de funcionamiento, acreditativas de que se cumplen las condiciones y requisitos establecidos, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 11 c) del citado Decreto 396/1994.

La cancelación de las inscripciones se realizará mediante la emisión, por el órgano competente, del documento que acredite la concurrencia de causa para efectuarla.

### Artículo 3. – Notas marginales.

1. – Mediante nota marginal, se podrán hacer constar en el Registro las modificaciones del centro, servicio o establecimiento sanitario que, por no afectar a sus elementos sustanciales, o por carecer de trascendencia sanitaria, no estén sujetas a autorización, sino a simple comunicación.

2. – Así mismo, podrán inscribirse mediante nota marginal los datos relativos a los conciertos que cada centro, servicio o establecimiento sanitario suscriba con entidades públicas, a las subvenciones públicas de las que sea beneficiario, a los expedientes sancionadores incoados contra los mismos, así como cualesquiera otros datos de interés administrativo-sanitario.

### Artículo 4. – Información básica del Registro.

En el Registro deberán constar, con el carácter de información básica de cada centro, servicio o establecimiento, como mínimo, los siguientes datos:

- a) Número de Registro.
- b) Fecha de inscripción.
- c) Fecha de las autorizaciones.
- d) Denominación.
- e) Titular patrimonial.
- f) Responsable de la actividad asistencial.
- g) Domicilio.
- h) Finalidad asistencial.
- i) Número de camas, en su caso.

### Artículo 5. – Normas de funcionamiento.

Tanto los asientos como las notas marginales se practicarán de oficio y de conformidad con lo que se desprenda del correspondiente expediente administrativo de autorización del centro, servicio o establecimiento sanitario.

A estos efectos, una vez dictada la autorización o, en su caso, recibida la comunicación del interesado, el órgano competente dará traslado de la misma al Encargado del Registro de la Delegación Territorial en la que tenga su domicilio el centro, servicio o establecimiento, para su inscripción o anotación.

### Artículo 6. – Publicidad.

1. – El Registro de centros, servicios y establecimientos sanitarios es público. Los datos objeto de inscripción o anotación registral están a disposición de todos los ciudadanos.

Previa solicitud del interesado, los Encargados Territoriales del Registro facilitarán el acceso a sus datos y emitirán las correspondientes certificaciones acreditativas de los mismos.

La publicidad que se regula en el presente artículo

baimendutako osasun zentro, zerbitzu edo establezimenduen katalogo bat aldian aldian argitaratuz ere egin daiteke.

2.- Erregistroaren publikotasunetik kanpo gelditzen dira pertsonen intimitateko datuak eta isilpekotzat hartu behar diren beste guztiak, Herri-Administrazioen Lege-Araubide eta Guztientzako Administrazio-Iharrundibideari buruzko 30/1992 Legearen 37. atalean eta ezargarri diren gainerako xedapenetan ezarritakoari jarraituz.

#### GEHIGARRIZKO XEDAPENA

396/1994 Dekretuaren gehigarriko xedapenetatik bigarrenean xedatutakoarekin bat etorriz, indarrean dauden baimenetatik sortzen diren inskripzioak ofizioz egingo dira Erregistroan.

Horretarako, bada, agindu hau indarrean sartzen denetik hiru hilabeteko epean emango zaizkie beharrezkoak diren datuen berri lurraldeetako Erregistroko arduradunei inskripzioak egin ditzaten.

#### AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.* - Osasun Plangintza, Antolaketa eta Ebaluaketa zuzendariari ahalmena ematen zaio beharrezkoak diren erabakiak eman eta agindu hau gauzatzeko bidezko diren neurriak har ditzan.

*Bigarrena.* - Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean sartuko da indarrean agindu hau.

Vitoria-Gasteiz, 1995eko martxoak 30.

Osasun sailburua,  
IÑAKI AZKUNA URRETA.

## Agintariak eta Langileria

### Oposaketak eta Lehiaketak

#### EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

1856

ERABAKIA, 1995eko martxoaren 30ekoa, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearena, «Nortasuna, Psikologi Ebaluazioa eta Tratamendua» jakintza-arloko Unibertsitateko Titularraren plaza bat hutsik uzten dela jakinarazten duena, berorretarako deialdia 1992ko azaroaren 19ko Erabakiaren bidez egin zelarik (Abenduaren 3ko «Estaturen Buletin Ofiziala»).

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen 1992ko azaroaren 19ko Erabakiaren bidez

podrá ser formalizada así mismo mediante la publicación periódica de un catálogo de centros, servicios y establecimientos sanitarios autorizados.

2.- Del carácter público del Registro se excluyen los datos referentes a la intimidad de las personas y aquellos otros que deban ser considerados como reservados, a tenor de lo establecido en el artículo 37 de la Ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, y las demás disposiciones que sean de aplicación.

#### DISPOSICIÓN ADICIONAL

De conformidad con lo dispuesto en la Disposición Adicional Segunda del citado Decreto 396/1994, en el Registro se practicarán de oficio las inscripciones derivadas de las autorizaciones vigentes.

A estos efectos, en el plazo de tres meses a partir de la entrada en vigor de la presente Orden, se trasladarán a los Encargados Territoriales del Registro los datos necesarios para proceder a las correspondientes inscripciones.

#### DISPOSICIONES FINALES

*Primera.* - Se autoriza al Director de Planificación, Ordenación y Evaluación Sanitaria para dictar las Resoluciones necesarias y adoptar las medidas oportunas para la ejecución de la presente Orden.

*Segunda.* - Esta Orden entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 30 de marzo de 1995.

El Consejero de Sanidad,  
IÑAKI AZKUNA URRETA.

## Autoridades y Personal

### Oposiciones y Concursos

#### UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO

1856

RESOLUCIÓN de 30 de marzo de 1995, de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea por la que se declara desierta una plaza de Titular de Universidad del área de conocimiento: «Personalidad, Evaluación y Tratamientos Psicológicos», convocada por Resolución de 19 de noviembre de 1992 («Boletín Oficial del Estado» de 3 de diciembre).

Por Resolución de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea de 19 de noviem-